




- **Kirola:** Soraluze berriz Deba Balarako Pilota txapelketan
- **Entzutekuak:** Txirrindularitza lasterketetako antolatzaileekin berbetan

soraluzeko
hamabostekaria **172.** alea
2008ko otsailaren 22an

@pil-pilean

Eskolan
euskeraz bai,
baina
kanpuan...

Ia, hori da.
Mundua zegaikitik
da gero hain
erdelduna?

ÓN!
MBUSTIBLE
CAR LLAMA
UZCAN CHISPAS



**Gaztetxoak euskaraz:
badakite, baina badarabilte?**

plaentxia.com

PIL-PILEAN
KUSKARRA ELKARTEA

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua

**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022

LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Garbiketa orokorrak
Garbiketa industrialetan espezializatua
Bulego eta lantegien mantenimendua
Makina garbiketak
Garaje garbiketak
Obra amaierak
Marmol eta terrazoen distiratzeta
Graffiti garbiketa
Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

Errekalde, 30 behea
Telf.: 943 75 25 57
Fax: 943 75 25 56
20590 SORALUZE

kaligrafia
ilustrazioa
editoriala
irudi korporatiboa
posterrak eta kartelak
mahaiak eta erakusketak
web

silviovaz.com

**GOTZON ELIZBURU****MAITE KINTANILLA**

AITZAKIXAK ALDE DANETATIK

Apa gaztia! Aitzakixak. Aitzakixak erabiltzen doguz gaixak plazaratzeko. Oin hilabete atal honetan bertan Bittorrek eta Anderrek hezkuntzari buruz jardun zeben. Lehiakortasuna, neoliberalismua eta antzeko hitzak erabili zittuen.

Europa neoliberal honetan dana mobitzen da merkatuan logikan. Eta aspaldi hartu zeben goi mailako hezkuntzia be merkatuan sartzeko erabakixa. Bologna Prozesua. Honen ondorixuak garbixak: ikasliok enpresen mesedetara egindako objektu huts bilakatzea, karrera eta masterren garestitzia, ikasliak ikasketetara bakarrik dedikatzea (egunian 8-9 ordu sartuz, laneko esplotaziñora ohitzen juateko)... Europa osuan ezarriko denez, bakoitzak etara deixezela kontuak ze mesede egingo dotsazen horrek gure hizkuntza eta kulturari.

Eta hasi dira aplikatzen, Maite, ez dakit zure karrerari, baina nerrian bai. Dana izugarritzko sekretismuakin. Ikasliok 3 urte daramatzagu Bolognari ezetz esaten eta zein da errektoretzen erantzuna? Aitzakixak. Goitik datorren zerbait dala eta ezin dabela ezer egin, eurak diranian hau aurrera eruateko planak egiten dabizenak. Izan be, aitzakixak gai batzuetatik ihes egiteko be erabiltzen dira.

Bolognan karamelua saldu doskue; irakasgaixen metodologia askoz praktikuagua da, baina horren truke prozesu honek atzetik daukan guztia onartzeko prest gare? Aitzakixak berriz be. Zuk ze uste dozu Maite? ☺

Goi mailako hezkuntza merkatuan sartu nahi dabe

Gotzon Elizburu

Maittasunaz, inguruni-az... gozatzeko aukerarik ez

Maite Kintanilla

Ei! Beittu neuk be topatu dot oinguan zurekin harremanetan jartzeko aitzakixia!

Baina askok aitzakixarik be ez da dabe bihar izaten gaztiok zapaltzeko.

Joe Gotzon! Ixa denporarik be ez dot etara zeuri hau idazteko, bada-kizu... oin eskusiboki ikasketetara dedikatzea kondenatu nahi gaittue eta! Aisialdiaz, maittasunaz, inguruni-az... eta bestelakuez gozatzeko aukerak ezabatu eta robot hotz hutsak izatera bideratu! Eta, noski, hori dana sekretupian... Eta askok karameluan kanpoko papel ikusgarrixa soilik ikusten dabe eta horrek engainatuta, berandutu egiten jakue... Bai, karamelua ahuan izaten dabe bere zaporiaz konturatu orduko eta.

Baina, ez! Bolognan bidiaz gain, beste hamaika aukera dakaguz aukeratzeko, sortzeko, gauzatze-ko... Eta nik baten inguruan irrika berezixa dakat. Zuk baita?

Partehartzailia, aurrerakoia, hezkidetzaia, nazionala, euskalduna, anitza... Utopia hutsak dirala emoten dau, ezta? Ba ez Gotzon! Adjetibo erreal eta gauzakor honez gain, beste hainbatez betia egongo da gure Euskal Eskola Nazionala! Gure curriculum propixuan oinarritua. Hala, geure hizkuntzan gure kultura ikasi ahal izateko, geure iragana ulertu ahal izateko... Guk geuk guretzat sortua, inposiziño guztietatik at.

Aitzakixak alde batera lagata, ametsak amestu biharrian betetzera joko dot, bazatoz nerekin? A! ta ahaztu aurretik... garraxika, ondo entzun deixela... maitte zaittut!! ☺

Goguan hartzeko

Asto bat hil eta beste bat piztu, kitto.

Esaera zaharra



GUTUNAK

Eskerrik asko, Soraluzeko “Nuestra Sra. de la Merced” Egoitzari

Eugenio Guenetxea Lazpitaren senideok, gure esker ona adierazi nahi diegu Egoitzako bizilagun, langile eta arduradunari.

Eugenio 2008ko otsailaren 5ean zendu zen Egoitzan, eta bertan bizi izan zen denbora guztian, bertako en gertutasuna eta berotasuna jaso zituen, bere familia handitu egin zela sentituz.

Eskerrak Herritarrei

Soraluzeko ezker abertzaleak, eta bereziki EAE-ANVren izenean hautatuak izan ziren Udaleko alkateak eta zinegotziek, eskerrak eman nahi dizkizuegu era batera edo bestera salbuespen egoera honen aurrean zuen babesa eman diguzuen guztioi.

Ezin epaiketa euskaraz egin

Beste behin ere herritar baten hizkuntza eskubi-deak guztiz urratuak izan dira justizia alorrean. Euskara hizkuntza “ofiziala” ei da EAE-n behintzat. Baina argi utzi dute, beste behin ere, ofizialtasun hitz dotore horren azpian gezur hutsak soilik ezkututzen dizkigutela.

Otsailaren 19an plaentxiatar bat epaitua izan zen Durangoko epaitegian. Aldez aurretik eskatu bazuen ere, epaiketa gaztelania hutsean burutu zen. Tamalgarria da behin eta berriz eskatu beharra epaiketa euskaraz burutze hori, eta hala ere, gurea den eskubidea ukatua izatea.

Epailea euskalduna suertatu bazitzaion ere, fiskala eta idazkaria erdaldunak ziren. Honen au-

Herriko Musika Taldeei

Plaentxi Motoclub elkarteak maiatzaren 24 eta 25ean 13. motor kontzentrazioa antolatuko du eta herriko musika taldeei dei egiten die denen artean kontzertu bat antolatzeko zapatu gauean. Jotzeko

Gestio bideak arauen arabera neurtzen diren garai hauetan, Q sarien garaian, gure iritzi xume bezain sakona gehitu nahi genuke: Egoitzari bikaintasuna giza harremanetan eta giza laguntzan.

Aipatutako guztiagatik, Egoitzako bizilagunei, bertan lanean dauden edota bertan lan egin duten pertsoneri eta bertako arduradunari. Mila esker!

MILA, XABIER, TERE ETA DONE

Zuengandik jasotako elkartasunak indarberritu egiten gaitu benetako marko demokratiko baten alde eta gure herriarengatik lanean jarraitzeko. Mila esker denoi politikoei ukatu diguten babesa eman diguzuelako.

SORALUZKO EZKER ABERTZALEA

rrean, nahiz eta, euskara guztiz zapaldu, itzultzailea jartzea izan zen eurek hartutako neurri bakarra. Baina horrela pentsatzen dute hizkuntza eskubideak errespetatzea? Euskararen ofizialtasuna burutzea?

Soraluzetarraren erantzun argia izan zen: berak ez zuen hizkuntza eskubideen urraketan parte hartuko. Honela, epaiketatik ateratzeko baimena eskatu eta berau joatean bete-betean gure hizkuntzaren zapalkuntzan oinarritu zen epaiketa.

Aski da! Ez dugu etsiko euskararen erabateko eta egiazko ofizialtasun nahiz normalkuntza lortu arte!

Hizkuntza eskubideen borrokan... aurrera!

SORALUZKO EHE

interesa duten taldeek 687856130 telefono zenbakira dei dezakete programaren eta baldintzen berri izateko.

PLAENTXI MOTOC CLUB ELKARTEA

bittartetik



Gorka Prieto

Ume handien jolasa

Bi igandetik behin, Anoetan izaten naiz futbol partida ikusten. Horrek ez du bermatzen futbol gehiegi ikusterik baina bakoitzak merezi duguna omen daukagu. Egia esateko, partidua aurreko tragoxka arratsaldeko gauzarik onena izaten dela onartzeak dena argitzen du.

Mesias berria aukeratua izan zenetik, onartu beharra daukagu, gauzak ez dihoazkigula guztiz gaizki Errealean. Badirudi heldu diren jokalariai hasi direla fruituak ematen. Behintzat etxe-ko jokalariai berpiztu dituzte.

Errealak itxura hobea hartzen duen heinean, Anoeta gero eta igandezale (dominguero gazte-eraz) gehiagoz betetzen da. Norbaitek, orain gutxi, Errealean jokatzeko oso merke zegoela esan zuen. Ez dago merkeago errealean le izatea? Taldea ondo dabilenean bakarrik txalo egitea erreza da, zailena momentu txarretan hor egotea da.

Ez litzateke paradajikoa izango, erreala lehen mailara igo arren, ikusiko genukeen derby bakarra udetan Athleticen zorretan izango duena izatea?

Azken finean, futbola ume haundien jolas bilakatu den denborapasa besterik ez da. Gero arte, letxuga eta tomate!

((ENTZUTEKUAK))

Soraluze Saria txirrindularitza probako antolatzaileak

Zela akordatu jatzuen Soraluze Saria antolatzia?

Abuztuan jubenilendako egiten dala eta, Jose Antonio Atxotegik esan zeban dirua eta egun egoki bat ipini ezker, egin ahal-ko litzakela. Eta halaxe egin genduan, Udalarik %50eko diru-laguntzia eskatu eta Federazi-ñuakin fetxa bat adostu.

Lehen maiatzian izaten zan. Zer dala eta egun aldaketia?

Maiatzeko 2. domekan izaten zan, Bidasoako Biraren ostian. Baina Bidasoakua aurrreratu zebenian, parte hartzia jeitsi egin zan, nekatuta etortzen ziran... eta otsaileko azkenengo domekara aldatu genduan. Gainera, komunikuak be tokatzen ziran egun horretan. Afizionatuen denboraldia Soraluzeko lasterketiakin hasten da oin.

Zenbateko parte hartzia izaten da?

100-120 txirrindulari etortzen dira, gehixenak Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Naparruatik, baina Zaragozatik eta Santandertikan etorri izan dira. Aurtentzen soraluzetar batek parte hartuko dau, Mikel Hernandezek. Aurretik B. Goenaga, Adrian Diez, Gauba, J. Larrañaga, J. Oregi eta Z. Alberdik be parte hartu izan dabe.



Eskumatik hasita, Juan Mari Oregi lehendakaria, Jose Antonio Atxotegi, Oregi, Juan Luis Ugalde eta Elizburu, Allegro Elkartearen bilduta.

Lasterketa hau antolatzeko ze zailtasun izan dozuez?

Dirua etaratzia da gogorrena, baina taberna eta enpresak asko laguntzen doskue. Zorionez karrerarako laguntzailiak asko daukaguz, 60 inguru. Eskerrak emon biharrian gare jende askori, bereziki Goiko Eskolakuerei apuntatzeko lokala lagatzen doskuelako eta San Andresko elkartequeri, abuztuan asko laguntzen doskue eta.

Soraluzeko lehenengo lasterketia 1926xan izan zan. Noiz arte zuek?

Felix Etxaniz “Arruza”k parte hartu zeban lasterketa hartan. Guk 10 urtian antolatzeko konpromisua hartu genduan eta 11.era goiaz... Jarraituko dogu baina jende barrixan preminan gare, gaztiak bihar doguz, eta neskak be bai! ☺

110 txirrindulari inguru etortzen dira urtero

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoia kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinu eta maketazioa:** Silvio Vaz **Komikixia:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA

SAN ANDRES
ITURGINTZA
Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak
Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA
Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

“Barne-barnetik Soraluze”, herriari buruzko bideoa

Uda ostean kaleratuko du Udalak Soraluzeko ezau-garri nagusiak batuko dituen bideoa. “Barne-barnetik Soraluze” izena du eta 1.000 kopia aterako dituzte. Galdare ikus-entzunezko komunikazio enpre-

sa arduratuko da lan hori egiteaz. Herriko historia, ondarea, kultura, geografia, ohiturak... batuko ditu. Gipuzkoako herri askok dute eginda eta EITBko “Barne-barnetik” dokumental saioan emititzen dira bideoak.

Herriko ospakizunak, grabatuta

Grabaketak egingo dituzte herriko egun berezietan (dagoeneko grabatu dituzte Gaztañerre eta San Blas egunak) eta lehendik eginda dagoen materiala eskura daukate, oinarritzat erabiltzeko; horien artean, Ramiro Larrañagaren historia liburua, Zirikadak eta Eztenkadak, Baserrien liburua, Euskal Jaiko DVDa eta Soraluzeko bideo zaharra. Inork ekarpenik egin nahi badu, Udal-letxera jo dezake. 

Galdare enpresako kamera San Blas lehiaketa grabatzen



Greba orokorrak eragina izan zuen



EAE-ANV alderdiaren legez kanporatzea salatuko deitutako grebak erantzuna izan zuen herrian. **Hezkuntzan**, ikastetxeak irekita egon ziren arren, irakasle batzuek greba egitea erabaki zuten, eta haurreskola itxita egon zen. **Merkataritzan**, aurretik adostu zuten dendari-iek greba egitea eta gehienek itxi egin zuten. **Industrian** ez dago datu zehatzik ematerik. Langile batzuek greba egin zuten eta lantegiren bat-tek edo bestek ere itxi zituen bere ateak. Eguardiko elkarretaratzean 100 lagun inguru batu ziren.

Zubi Nagusiko lanak arindu beharra

Datorren astean batuko dira Udaleko ordezkariak eta Zubi Nagusiko lanak egiten diharduen Amaral enpresako arduradunak obraren inguruan berba egiteko. Jose Luis Arizaga, Txipi, alkateak adierazi duenez, “zubixa barritzeko lanak oso poliki doiaz, hiru langile besterik ez diralako egoten. Orduan, honek lanok arintzeko eskatuko dotsegu, ahalik eta denbora laburrenian bukatu deizen”.

Odol-emaileen egutegia



Soraluzeko Odol-emaileen elkarteak jakitera eman duenez, 2007an 270 odol-ateraldi izan ziren, azken urteetako kopuruaren antzekoa. 2008 urtean sei egunetan izango da odola emateko aukera:

Martxoak 28
Maiatzak 23
Uztailak 18
Irailak 19
Azaroak 21

Postaz botua emateko

Soraluzeko Eusko Alkartasunak telefono zenbaki bat ipini du Espainiako Hauteskunde Orokorreran botoa korreoz eman nahi duenari beharrezko izan zaizkion pausoak zein diren azaltzeko. **943 75 18 48**

Udaberrian hasiko dira ibaiko kolektorea egiten

Soraluzeko ur fekalak eta Industrialak Elgoibarko Apraiz arazteginaino eramango dituen hodia egiteari aste gutxi-
ren buruan ekingo diote. Eusko Jaurlaritzak esleitu du azpiegitura horren eraikuntzarako proiektua, Soraluzetik Maltzagara ur zikinak kanalizatuko dituen (han eginda dagoen kolektorea-
rekin bat egingo du), eta Ogebisa enpresari eman dio, 2,8 milioi euroko zenbatekoarekin.

Hormigoi armatuzkoa izango da kolektorea, 400mmko diámetro izango du eta 4 km inguruko luzera. Lanak udaberrian hasiko dira eta urtebete inguru iraungo dute.

Debabarreneko urak, Elgoibarko arazteginara

Elgoibarko Apraiz araztegiak Eibar eta Elgoibarko ur zikinak batzen ditu gaur egun, baina egiteko dauden Mallabia, Ermua, Mendaro eta Soraluzeko kolektoreek bideratutakoa arazteko 100%eko funtzinamendua izango du 2009 urte amaierarako.

Bergarako araztegia, udaberri bukaerarako

Ekaina bukatu aurretik Mekolaldeko araztegia martxan izatea espero du Eusko Jaurlaritzak. Horrek Soraluzeri zuzenean eragingo dio, ibaia askoz garbiagoa etorriko da eta. 



Udan ur-emaria gutxitzen denean igartzen da gehien kutsadura.

Ongietorria euskaraz

Pil-pilean Euskara Elkartearen proposatuta, martxoan ipiniko du Udalak bi kartel hauetako bat herriko sarrera bietan. Plaentzia.com webgunean ipini dituzte biok eta boto gehien lortzen dituen aukeratuko dute.

SORALUZEN
Euskaraz Bizi Gara

SORALUZEN
Euskaraz Bizi Gara

TXOKO
KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

ARRANO
tabernia
etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua
etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDETEGIA
CERTICAR
Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

JABIER ALBERDI
HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA
KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN PRODUKTUETAN.
KALITATEA
Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Euskara gure atarian

Estazio kaleko atari horretan, euskaraz egiten diote ongi etorria kanpotik datorrenari. Gero eta gehiago dira atariko errotulu eta oharrrak euskaraz jartzea erabakitzen dugun bizilagunak. Bejondeigula!

**Euskara ez dago salgai**

Iragarki hau jarri duenak ez al du espero erosle euskaldunik Soraluzen? Herrian gehiengoa euskalduna izanik, konturatu behar luke iragarkia erdara hutsean jartzea ez dela publizitatea egiteko modurik egokiena.

**Zer egin?**

“**Zure atariko oharrrak jartzen dituen bizilagun edo enpresari oharrrak euskaraz jartzeko eskatu**”

Atariko oharrrak euskaraz

Beldur eta konpleju asko izan dugu orain artean eskilarako oharrrak euskaraz jarri edo jartzeko eskatzerako orduan ere. Egin aproba eta hurrengo bileran eskatu oharrrak euskaraz jartzeko. Bizilagunek gustora hartuko dute. Testuren bat itzuli behar izanez gero, Udaleko euskara zerbitzura jo dezakezue.

943 85 30 43
euskara@soraluze.net

Zaku Berean

Andoni Egañak
Egunkaria itxi zuteneko
5. urteurrenean jarritako
bertsoak

Orain bost urte iritsi
ziren etxeko atera
txamarra zaku, gizon bat
Patroleraino atera.
Argazkitan azaldu zen
txamarra burutik behera
begiratu oinetan,
bideko har-legarrera.
Zer ote zeukan aurrean?
Zer uzten zuen atzera?
Nork egin zuen oihua:
“EGUNKARIA aurrera!”?
zihoana zihoala
ez zihoan soilik bera
mordoska bat gindoazen
zakupe hartan batera.

Ziega batean sarturik
zeinek babestu behar nau?
Berriro krisketa-hotsa
bizia, mingarria, rau!
“Todos son del mismo saco”
giza-lege eza arau...
“ez al duzu erantzun nahi?”
zutitu, biluztu, barau!”.
Zaku bat burutik behera
zaku zaku zakua hau!
Dena zulo beltz bihurtuz
den-dena bilakatuz gau
oihu ta umilazio
txilio eta alarau
denbora asko joan da...
izu-ikarak hor dirau.

Kaleratu zituzten bai,
denbora igaro ahala...
“Zaku berekoak dira”
hasi zen berriz fiskala.
“Zaku beretsuan daude”
Audientzia Nazionala...
Justizia irudiaren
begietako oihala
esan liteke zaku zahar
zirrikituduna zala
neurtzen zuen momentuko
aukera koiunturala
Justiziak koiunturaz
baldin baleki bezala...
horrexek erakusten du
hain Justizia ez dala.
Zakua uler dezake

bakoitzak bere gisara
gure hau emana dugu
euskal nahiz herrigintzara.
Epaiketaren atetan
aurkitu gintezke iada...
izenak hamabi dira,
baina epaitu ilara.
Gu ere sar baikintezke
akusatuen pilara
ozen esango dizugu
epailea, entzun hara:
“Zaku hortan egotea
delitua baldin bada...
gu're gaizkile gaituzu
zaku berekoak gara”.

**ESANAK****Euskal unibertsitateak 2010ean****Euskara hutsean jardungo du**

Ikasketa guztiak euskaraz emanen dituen euskal unibertsitatea sortzeko abiapuntua osatu dute Udaleko Euskal Unibertsitateak (UEU), Nazio Ertabaida Guneak eta Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak. Proiektua sustatzeko talde bat osatu

dute hirurek, eta haien asmoa da 2010-2011ko ikasturtean abiatzea, zortzi titulaziorerkin.

<http://www.berria.info>

Gomendioa

<http://www.euskaltube.com>

Hemengo kontuen bideoak euskaraz. 2007an jarri zen martxan euskaltube.com ataria. Dagoeneko era guztietako ehundaka bideo

daude bertan. Gehienak Euskal Herrikoak dira eta asko euskaraz daude.

**Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko**

Behatokia 902 19 43 32
www.euskararentelefonoa.com

Elebide 012
www.euskadi.net/elebide

**Otsailaren 20a
5 urte Egunkaria gabe**

**Egunkaria
libre!**

munduan libre
bizi ahal izateko
Egunkaria
libre munduan
bizi ahal izateko

Epaiketa eguna ezagutu eta hurreratu ahala, ekimenak antolatuko dira herrian

Soraluzeko gaztetxoak eta euskara

Herriko gaztetxoek hizkuntz errealitatearen berri jaso nahian ikerketa egin du Soraluzeko Udalak eta euskarazko gaitasuna, erabilera nahiz jarrera aztertu ditu. Kalean erdaraz hitz egiteko joera nabarmena agertzen dute, euskarazko gaitasuna izan arren. Horri erantzuna emateko zenbait azalpen aurkitu ditu ikerketak.

2001eko erroldako datuen arabera
biztanleen %60 euskaldunak
%17 ia euskaldunak
%23 erdaldunak

Datu positiboak

%66,8 euskaraz erdaraz baino hobeto edo bezain beste moldatzen da.

%77,93ak du euskara, bakarrik edo erdararekin batera, ama hizkuntzatzat.

%74,8ak beti euskaraz edo erdaraz baino gehiago hitz egiten du ikastetxean.

Datu negatiboak

Gurasoen artean gehiengoak -%48,4- erdaldunak dira.

Guraso batek euskara ez dakienean, %11,2an ez da euskara transmititzen.

Gurasoak kanpotarrak direnean, seme-alaben heren bat erdalduna da.

%29,32ak hitz egiten du kalean beti erdaraz edo euskaraz baino gehiago.

Gazte euskaldunak, erdaldunak baino gehiago

Hizkuntza gaitasunak gora egiten dihardu azken urteetan herriko haur eta gazteen artean, batez ere hezkuntza sisteman ikasleek "D" ereduaren ikasten dutelako. Datuen arabera, gaztetxoek heren bat (%33,9) euskal elebidunak dira (orokorrean, euskaraz erdaraz baino errazago edo erosotasun handiagorekin hitz egiten dutenak) eta beste hainbeste (%32,9) elebidun orekatuak (orokorrean, "berdin hitz egiten dute euskaraz eta erdaraz"). Horien ondotik, eta portzentaia esanguratsua da hauena -%21,45-, erdal elebidunak datoz, erdaraz errazago edo erosotasun handiagorik dihardutenak.

Ama hizkuntza euskara dutenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Gune eraginkorak: familia, eskola eta aisialdia

Belaunaldi berriek euskara bereganatzeko dituzten gune nagusiak familia, eskola eta aisialdi

guneak dira. Gune hauek aparteko garrantzia daukate haur eta gaztetxoak gizarteratzeko orduan eta euskararen transmisio-prozesuan. Portzentaiaetan, ordea, aldea dago gune bakoitzak gaztetxoak euskalduntzeko duen gaitasunean.

Ama hizkuntza, erabakiorra

Txostenaren arabera, gaztetxoek erdaraz daukaten gaitasun handi horrek lotura zuzena dauka ama hizkuntza moduan erdaraz daukaten gaztetxoek kopuru handiarekin. Gaztetxoek %66k gaztelera etxean ikasi dute, eta horietako %40,6k gaztelera bakarrik ikasi dute. Ama hizkuntza euskara izan dutenek askoz gehiago erabiltzen dute euskara ama hizkuntza moduan erdaraz bakarrik daukatenek baino.

Guraso erdaldunak, %40

Gaztetxoek gurasoak biztanleria osoa baino erdaldunagoak dira proportzioan -%40-. Guraso erdaldun horien kopuru txiki batek bakarrik -%12,7- egin du euskara ikasteko ahalegina. Jarrera horiek eragina dute seme-alabek euskararekiko duten jarreran.

Gurasoetako bat erdalduna daukaten gaztetxoek nabarmen gutxiago egiten dute euskaraz bai anai-arrebarekin, bai euskaraz dakien gurasoarekin, eta euskararen transmisioa gutxiagotu egiten da, bereziki, guraso erdalduna aita bada.

Hezkuntza, hizkuntza gaitasunaren transmisore

Handia da hezkuntza sistemak familiak sortu ezin duen hizkuntza gai-

tasuna transmititzeko orduan hartzen duen garrantzia.

Hamarretik zazpi pasatxok - %74,8- beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egiten duela aitortzen du ikaskideekin ikasgelan. Ikasgelatik kanpora, jolasorduetan, hamarretik bost dira -%54,9- beren ikaskideekin beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egiten duten gaztetxoak. %72,6ak nagusiki euskaraz hitz egiten du ikaskideekin aisialdi guneetan.

Ikasgelatik urrunduta, erdararako joera handitu egiten da

Escolan kalean baino gehiago

Ez dira hamarretik laura iristen -%39,1- kalean ikaskideekin beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak. Gaztetxoek hamarretik hiruk -%29,32- beti erdaraz edo erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dute.

Ikasgelatik urruntzen diren neurrian, areagotu egiten da gaztetxoek erdaraz erabiltzeko duten joera. Badirudi ikasgelatik berak eta irakaslearen presentziak euskara egitera bultzatzen/behartzen duela gaztetxoa.

Gurasoen euskararekiko interesa, hizkuntza gaitasunak baldintzatuta

Gurasoak euskaldunak direnean %72k euskararen gaitasunak erdaldunak direnean interes handia %6,6k baino ez du agertzen. Erdaldun hauen artean %16,5ek interes txikia daukatela esaten dute eta %8,8 dira inolako interesik ez dutela diotenak.

Kale neurketaren emaitzak

Inkestarekin batera behaketa zuzena ere erabili dute azterlanean, kale neurketaren teknikaren

Istitutoko Euskara Batzordea

"Hedabidiak, musika, interneta... erderazkuak izatiak asko eragiten dau"

Euskeria zenbat erabiltzen dozue zuen artian?

Batzordekuon artian euskeraz egiten dogu, baina bestela, orokorrean, erderia baino gutxiago erabiltzen da euskeria. Badare euskeraz gaizki moldatzen diranak eta horrekin erderaz egiten dogu. Beste batzuk beti erderaz egiten dabe, eta azkenian geuri be erderaz urtetzen jaku. Hedabidiak, musika, interneta... gehixen bat erderazkuak dira eta horrek be eragina daka erdalduntzian.

Ikastetxian eta kalia berdin erabiltzen da?

Bai, ez dago alderik. Gainera, Lehen Hezkuntzan ez, baina hemen badare ikasliak euskerako klasieta be erderaz erantzuten dotsenak irakasliari. Eta batzutan irakasliak be erderaz erantzuten bukatzen dau.

Adinak diferentziarik sortzen dau?



Kuadrilaka izaten da. Oin 16 urte daukaguzenon artian, erdera larregi egiten da. Beste maila batzuetan beti euskeraz diharduenak badare.


Zein da ikaslien Euskara Batzordian zeregina?

Euskara bultzatzeko asmuakin urtian zihar ekintzak antolatzen dittugu. Euskal jokuak, pintxo eta tarta lehiaketak, diapositiba emanaldixak... Euskerian aldeko kartelak ipintzen doguz parietan eta CD eta DVDteka bat be badaukagu, euskarazkuak danak, baina egixa esan beti jende berdina hurbiltzen gara.

bitartez. Adinean gora doazen neurrian euskararen erabilera behera egiten du. Hala, Lehen Hezkuntzan euskararen erabilera jolasorduan %61,9 den bitartean, Bigarren Hezkuntzan erabilera %42,8 da. Ikastetxetik kanpora, gaztetxoak ikaskideekin kalean daudenean, euskararen erabilera %48,5 da, jolasordukoak baino ia zazpi puntu baxuagoa. Kaleko portzentaiaetan ere aldea dago Lehen Hezkuntzako ikasleetatik -%56,8- Bigarren Hezkuntzakoetara -%37,2-. ☺

Batzordekideak euskararen aldeko leloak erakusten





Telebista ikustia gustoko dozu?

Zenbat denbora emoten dozu telebista aurrian?



Ez jata asko gustatzen. Gutxi ikusten dot, ordu erdi edo egunian. Surfari-buruzko edo animalixeri buruzko dokumentalak ikusten dittut. Nere anaiakin marrazki bizidunak ikusten dittut.



Bai, baina gutxitan ikusten dot, astirik ez daukat eta. Telesailak eta pelikulak ikusten dittut. Arratsaldetan nik bakarrik ikusten-dot eta gurasuekin gabian. Ordubete inguru ikusten dot egunian.

Bai, asko gustatzen jata telebista eta jatordu danetan ikusten dot. Animalixen dokumentalak asko gustatzen jataz, eta marrazki bizidunak be bai, baina albistegixak ez, zatarrak dira eta. Gainera, notizia danak txarrak izaten dira.



Bai, egunian hiru aldiz edo ikusten dot, goizian, eguardixan eta gabian. Marrazki bizidunak eta telesailak ikusten dittut, eta gehixen High School Music gustatzen jata. Normalian nik bakarrik ikusten dot.



DENBORAPASA

Bila itzazu aurreko taulan hitz hauek:

- * MASKARAK
- * BERBENAK
- * TXOKOLATADA
- * FESTA
- * INAUTERIAK
- * BURUHANDIAK
- * LEHIAKETA
- * MOZORROAK

BURUHANDIAK GHJKLOPUT
DEUATAERTUIOPLKAGTJK
SDIDIKAI RETU ANAS FHAS
HTKT PA A WERTUIONAZ FBA
GUJ JOTATDFGHKSESADNM
DIM I LERESDJKLABJBUFK
KONKKKT I KE GHFDRFKLEJ
LPBNJAEOLHFADSEAHFRL
EZXMHIRUHJNMTZBBKDBI
RSZGGHTASDFGHKADFSFO
UASDFEDFNGHJKLMADSAP
TXOKOLATADAKAORROZOM



Ugaraxo Alaiak izan dira aratusteak!

Kaixo lagunok! Gu seigarren mailakoak gara eta aratusteak, ia mundu guztian ospatzen direnak, ikastetxean nola pasatu ditugun kontatuko dizuegu. Oso barregarriak dira eta oso ondo pasatzen da.

Otsailaren batean, eskolan aratusteei hasiera eman genien, argazkiak atera eta desfilea eginez. Desfileko lehenengoa Josu Benito zihoan olinpiadetako zuzia eramanez. Josuren ostean, bandera olinpikoa eta lema eta lehen hezkuntzakoak zihoazen.

Desfilea bukatu ondoren, dantza egin genuen: lehenengo, Haur Hezkun-tzakoeak, dantza pijamaz jantzita eskaini ziguten. Ondoren, Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzak dantza bat prestatu zuen olinpiadei buruz.

Dantzaren amaieran, txokolatea eta bizkotxoak jan genituen, oso goxoak zeuden. Arratsalde horretan primeran pasatu genuen!!!

Gure herrian, otsailaren 2an hasi ziren eta 5ean, bukatu. Otsailaren 2an, arratsaldean mozerrotu ginen eta gauean kontzertuak eta lehiaketa izan ziren.

Aurten, Otsailaren 5ean, mozerro lehiaketako lehenengo saria gure gelako



Ugaraxo 6.A eta Ugaraxo 6.B: 6.A eta 6.B mailako ikasleak mozerrotuta

talde batek irabazi zuen. Gero, txokolatada izan genuen. Oso ondo pasatu genuen, buruhandiekin eta Galtzagorri Txarangarekin.

Aratusteak jairik onenak dira guretzat!!!



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Soraluze euskaraz bizi dan herrixa da?

Atzo izan zen Ama Hizkuntzen Nazioarteko Eguna. Soraluzen hizkuntza asko erabiltzen dira. Baina ze leku du euskarak?


MARIASUN ALBERDI
Etxekoandria




AINHOA ZUBIZARRETA
Sukaldarixa



SANTOS ELIZBURU
Lanik barekua



IÑAKI IÑARRA
Harakina



Komeni da, baina ez dot uste euskeraz bizi danik. Ni euskeraz bizi naiz, neuria euskeria dalako, euskalduna naizelako baina leku batzuetan eta batzuekin ez dago aukerarik.

Nere ingurua euskalduna izan arren, ez dot uste herrixa euskalduna danik. Jende nagusi askok erderaz egiten dau eta gaztetxuen artian be entzuten da. Ni euskeraz egiten saiatzen naiz baina danetik dago.

Ez. Danian dago euskerian faltia, eskolatik hasita. Igual luzera hobetarako izango da baina eskola bixak batziakin euskeria galdu egin da. Ni euskeraz bizi naiz, ahal doten guztian.

Ez. Udaletxiak kanpainak egin biharko li-ttukez euskeria bultzatzeko, teknikuen bittartez. Dendan dakixenakin egiten dot euskeraz eta aha-legintzen naiz euskeria erabiltzen ez daben gaztekin be euskeraz egitten.

Soraluzeko Txuri-Urdinak Elkarteak 5 urte beteko ditu

5. urteurrena ospatuko du Txuri-Urdinak Elkarteak datorren astean.



Martxoaren 1ean, zapatua, 12etatik 14etara eta 16etatik 19etara puzgarriak egongo dira Plaza Barrixan. Eguardiko ordubatean Errealzaleen poteo mundiala egingo dute, 14:00etan bazkideen argazkia Plaza Barrixan eta 14:30ean Bazkaria Txurruka jatetxean.

Martxoaren 2an, domekan, 11etan falkoneria erakusketa eta zoo txikia egongo dira. 12etan salda, txorixoa eta ardoa Plaza Zaharrean eta buruhandiak eta txapliguak. 12:30ean opari banaketa bazkide gazteenei (karneta erakutsita).

Martxoaren 6an, eguenean, Batzar Orokorra egingo dute 19:30ean Txoko Kafetegian.

Liburutegiko karnetak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarako balio du

Soraluzeko liburutegia digitalizatzearekin batera, pasa den urteko maiatzetik hona ... herri-tar egin dira bazkide, eta hauek jasotako txartelak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren (ELSN) barne dauden udal liburutegi guztietarako balio du (Donostiako eta Bilboko Udal liburutegietarako izan ezik). On line katalogo kolektiboa webgunean kontsulta daiteke, baita maileguak eskatu edo erreserbak egin ere.



Txartela eskuratzeko


Liburutegian bertan egiten da. Datu-orri bat bete behar da eta momentuan bertan jasotzen da karneta, dohainik.



Itxaropenako Baba Lehiaketa

Lucia Reglero eta Denia Alvarezk irabazi zuten baba lehiaketako lehenengo saria; Tasia Martin eta Valentina Bravok bigarrena. Parte hartzaile denek jaso zuten saria eta inguratutako guztien artean jan zituzten babak, aza eta sahieskiarekin.

KOMIKIXA



Disenua eta Sormena
Poligono Amillage, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurruka
KZ 20000752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



HNOS. BENITO ANAIAS

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritzia tradizionala



Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Calles eta Arrieta Debarroa pilota txapelketan

Soraluzek badu ordezkaritza Deba bailarako pilota txapelketan. Aurten Andoni Calles eta Jon Arrieta pilotariek bikoitea osatu eta 61. Debarroa pilota txapelketan parte hartzen dihar-



dute, afizionatu mailan. 10 herrik parte hartuko dute eta aurreneko partiduak ligaxka modura jokatuko dituzte. Soraluzeren taldean Eskoriatza, Elgoibar, Arrasate eta Bergara II daude. Soraluzen jokatuko dituzten partiduak eguenetan izango dira, gaueko 21:00ak inguruan.

Elgoibarren kale, baina itxuran

Ligaxkako lehenengo partidua Elgoibarren jokatu zuten Calles eta Arreitak hilaren 15ean eta 22 eta 12 galdu zuten Elgoibarkoen kontra. Galdu arren, pilotakada eta jokaldi onak egin zituzten eta itxura ona eman zuten.

XI. Soraluze Saria domekan izango da

23 urtez azpiko txirrindulariek lasterketa izango dute domekan Soraluzen, goizeko 9:45ean hasita. 112 kilometroko ibilbidea izango du hamaikaga-

rren edizioak eta Estazio kalean hasi eta bukatu egingo da. Mikel Hernandez soraluzetarrak parte hartuko du.

Denis Garcia laugarren Olaberriako karting sarian.

Otsailaren 10ean ia 30 piloto lehiatu ziren Olaberriako zirkuitoan egin zen Karting Txapelketan, denboraldiko aurrenekoan. Denis Garcia soraluzetarrak 4. postua lortu zuen bere mailan (Open 125) eta 5. lekua saikapen orokorrean. Datorren domekan lehiatuko dira berriz ere Olaberrian.



EMAITZAK

PILOTA

Koka - Begino 13
Titin III - Laskurain 22

Titin III - Laskurain 22
Bengoetxea VI - P.Ruiz 16

Eskuz binakako final erdietan da Laskurain

FUTBOLA

Intxurre 1 - Sora 2 (Erreg.)
Sora 1 - Zestua 1 (Jub.)
Zestua 4 - Sora 4 (Kad.)

Sora 0 - Lagun Onak 3 (Erreg.)
Eibartarrak 0 - Sora 1 (Jub.)
Sora 0 - Mutriku 5 (Kad.)

AGENDA

PILOTA

Barixakua 22, Covaledan 22:00etan (ETB1)

Titin III - Laskurain
Olaizola I - Beloki

FUTBOLA

Domeka 23, Legazpin 16:15ean
Ilintxa - Sora (Erreg.)

Zapatua 23, Ezozin 16:30ean
Sora - Bergara (Jub.)

Zapatua 23, Bergaran 15:45ean
Bergara - Sora (Kad.)

ZORION AGURRAK



Adur
Martxuan 1ian 6 urte Zorionak!
Osaba-izeba eta lehengusina Yaizaren partetik.



Yaiza
Otsailan 19xan 8 urte Zorionak politta!
Gurasoen eta familiaren partez.




Koldo Etzaniz
Otsailan 28xan 9 urte Zorionak!
Etxekuen partez belarritik tirakada haundi bat!




Julene Zabala Goenaga
Otsailan 25ian 10 urte Zorionak pottola!
Oso ondo igaro zure eguna. Etxekuen partetik.



Iosune Egaña Txurruka
Otsailan 11an 19 urte Zorionak Rokera guapa!
Urte ona pasau ikasten eta musika jotzen! Muxu haundi bat etxekuen partez



Nahia Osoro Erkizia
Otsailan 11an jaixua Ondo etorri txiki!
Etxekuen partez.



Nerea Alberdi
Otsailan 24an 7 urte Zorionak eta muxu haundi bat familixan partez



Maialen Alberdi
Otsailan 21ian 12 urte Zorionak eta ondo pasau zure egunian, familixan partez.



Imanol Bermudez
Otsailan 29xan 20 urte Zorionak bisiesto!
Ondo pasau zure eguna Etxeko danen partetik

IRAGARKIAK

Etxebizitza salgai

Errabal kaleko 1A. atarian 64 m2-ko etxebizitza ia berria salgai. Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Jantzia.

Telefona: 658 33 97 09

Estetizista

Bergara. Esperientziadun estetizista bat behar da. Deitu 12:00etatik 16:00etara edo 19:00etatik 21:00etara bitartean.

Mug. 669 00 38 43.

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **1981eko zentsuan arabera, zenbat ginan euskaldunak?**

- 1 Biztanlien laurdena
- 2 Biztanlien erdixa baino gutxiago
- 3 Biztanlien erdixa baino gehiago

► **Saria:**
Fisioterapia saio bat **Ormazabal** zentruan

► **Irabazlea:** Maialen Alberdi

► **"Martxua" hilabetiari...**

martixa be esaten jako Soraluzen. Hilabetien izenak aldaera asko daukez. Gaztiak euskara batutik datozenak erabiltzen dittue gehixen; nagusixen artian junixua, setienbria, nobienbria... entzunak izaten dira.



GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

argitek
ELECTRICIDAD • ELETRIZITATEA

David Rascón
607 486 428

Instalaciones y reformas eléctricas en vivienda e industria

Instalazio eta erreforma elektrikoak etxebizitza eta enpreseetan

Balategieta, 17 • 20590 SORALUZE

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: B.M. Olaizola

ERRESIDENTZIARAKO TELEBISTA BAT

1950. urte inguruko argazkixa da. Erresiden-
tzian telebista baten premiñia ei zeken eta
funtziño bat antolatu zeben Gayarrian dirua ba-
tzeko. Hantxe egin zeban kantuan Allegroko tal-
diak, beste batzuekin batera. Boskote hau sarri

ibiltzen zan batian eta bestian kantuan, jubila-
tuenian be bai.

Ezkerretik eskumara: Ramiro Larrañaga (+),
Bixente Mari Olaizola, Miguel Olaizola (+), Xabier
Iñurrieta (+) eta Eustaki Maiztegi (+). 🍷

ARGAZKI ZAHARRAK BEHAR DITUGU ALDIZKARIAN ARGITARATZEKO

- Iratxo goxodendan utzi eta astebetera bertara itzuliko dizugu, edo
- Posta elektronikoz bidali: pilpilean@euskalnet.net

Argazkiarekin batera, urtea, agertzen direnen izenak
eta argazkiari lotutako konturen bat gehitu.



EUGENIO GUENETXEA LAZPITA

2008KO OTSAILAREN 5EAN HIL ZEN
95 URTE ZITUELA

Bizitzak, naturak lez, bere aroak
ditu. Orain amarekin elkartzerakoan,
bion artean, aita, jarraitu gu zain-
tzen.